Tampoco se verán afectados por la limitación anterior las creaciones y/o las modificaciones de plazas y/o puestos que se deriven de las medidas que puedan acordarse como consecuencia de Planes de Recursos Humanos de la Diputación Foral de Bizkaia y en particular las derivadas del Decreto Foral 31/2023, de 28 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Plan Estratégico de Recursos Humanos y Relevo Generacional Planificado con Transferencia del Conocimiento; o para los supuestos que se determinen en los planes o procedimientos de segunda actividad o movilidad por razones de salud.

3.- La limitación establecida en el apartado 1 de este artículo no será aplicable a las creaciones de plazas que deriven de cualquier posible acuerdo en relación con la reducción de jornada.

4.- No obstante lo establecido en el apartado 1, el Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, podrá autorizar la creación de nuevas dotaciones de personal en el supuesto de modificaciones en las relaciones de puestos de trabajo derivadas de la efectiva realización de traspasos de competencias, la creación de nuevas dotaciones de personal en el supuesto de creación de nuevos órganos y servicios, la asunción de la gestión directa de servicios externalizados o subcontratados, la consolidación de puestos o plazas de carácter estructural, la promulgación de normas forales o la aprobación por el Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural, siempre que cuenten con la adecuada financiación y previo informe favorable del órgano competente en materia de función pública en el que se haga constar la imposibilidad de atender las nuevas necesidades con la readscripción de puestos de trabajo, la reasignación de efectivos u otras medidas de racionalización y ordenación de recursos humanos, así como para los supuestos establecidos en los apartados 2 y 3 de este artículo.

11. artikulua.- Plazak sortzea, aldatzea eta amortizatzea.

Plantillako plazak sortu, aldatu edota amortizatzeko, beharrezkoa izango da Foru Aldundiaren edo foru-organismo autonomo bakoitzaren organo eskudunaren erabakia; erabaki horretan beren-beregi adierazi beharko da zeintzuk diren aurreko aldakuntzen ondoriozko eragin ekonomikoak, jarraian datozen artikulu hauetako irizpideen arabera.

12. artikulua.- I. kapituluko gastu gehikuntzaren mugapena.

1.- 2027. urteko ekitaldian zehar, plantilla gehitzeko edo aldatzeko espedienteak baino ezingo dira onetsi, betiere haien ondoriozko gastu-gehikuntza konpentsatu egiten bada beste plaza batzuek dagozkien lanpostuen bidez duten zuzkiduraren kreditua murriztuz. Ondorioz, plazak edo lanpostuak sortuko badira, aldez aurretik amortizatu egin behar dira beste plaza edo lanpostu batzuk, diru-zuzkidura berdinekoak edo handiagokoak.

2.- Aurreko mugapena ez da ezarriko plazak edo lanpostuak sortzea edo aldatzea behin-behineko langileen izendapenaren, auzibidezko epaia betearaztearen edota eskumen berriak bereganatzearen ondorioz gertatzen bada.

Ez da aplikatuko funtzionarioen barne-sustapeneko probetan, edota sartzeko deialdietatik aparteko deialdietan, baldin eta, deialdian eskainitako plazak betetzeko, automatikoki amortizatu behar badira beheragoko taldeko/azpitaldeko plazak.

Aurreko paragrafoaren ondorioetarako, plaza horien artean oinarrizko ordainketetan dagoen aldea baino ez da sartuko aurrekontuetan, eta, hala, amortizatzekoak diren plazetan kontsumitzeko (dagozkien lanpostuen bidez) dauden kredituak plaza hornituetara igaroko dira. Prozedura horren bidez hornitzekoak diren plazak kontzeptu bakar baten moduan agertuko dira, eta banakatu gabe, harik eta hornitzen diren arte.

Aurreko mugapena ez zaie ezarriko, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiaren giza baliabideen planaren ondorioz har daitezkeen neurriak direla-eta plazak eta/edo lanpostuak sortu eta/edo aldatzen direnean, bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 28ko 31/2023 Foru Dekretuaren ondorioz sortzen eta/edo aldatzen direnean (Dekretu horren bidez, Giza Baliabideak Kudeatzeko eta Belaunaldi Aldaketa Planifikatuan Ezaguera Transferitzeko Plan Estrategikoa onetsi zen); ezta ere bigarren jarduerako plan edo prozeduretan edo osasun zioengatiko mugikortasun plan edo prozeduretan ezartzen diren kasuei.

3.- Artikulu honen 1. apartatuan ezarritako muga ez da aplikatuko lansaioaren murriztapenari buruzko akordioen ondorioz plazak sortzen direnean.

4.- Lehengo 1. apartatuan ezarritakoa gorabehera, Gobernu Kontseiluak, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak proposatuta, langile-zuzkidura berriak sortzea baimendu ahal izango du lanpostuen zerrendetan aldaketak gertatzen badira honako egoera hauen ondorioz: eskumenak eskualdatzea, organo edo zerbitzu berriak sortzen direnean langile-zuzkidura berriak sortzea; kanporatutako eta kontratatutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzea; egiturazko izaera duten lanpostu edo plazak finkatzea; foru-arauak ematea edo Gobernuak egiturazko ez diren plan, programa edo jarduketa garrantzitsuak promulgatzea. Nolanahi ere, finantzaketa egokia egon behar da langile-zuzkidura berriok sortzeko eta funtzio publikoan eskuduna den organoak, aldez aurretik, aldeko irizpen eman behar du, eta bertan adierazi behar da langileen inguruko beharrizan berriei ezin zaiela aurre egin lanpostuen berradskripzioaren bidez, langileak berrizendatuz edo giza baliabideak arrazionalizatu eta antolatzeko beste neurri batzuen bidez. Halaber, baimendu dezake langile-zuzkidura berriak sortzea artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako kasuetan.

Artículo 13.- Excedentes de Crédito.

El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales podrá destinar los excedentes previsibles de créditos de vacantes, además de a lo que se indica en el artículo 21, tanto a la financiación de plazas diferentes de aquellas de las que proceda el excedente como a la celebración de nombramientos de personal interino o de contratos temporales, cuando sean necesarios para el buen funcionamiento de los Servicios.

Artículo 14.- Oferta de Empleo Público.

1.- A propuesta de la persona Titular del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y, en su caso, de los órganos de gobierno de los Organismos Autónomos Forales, la Diputación Foral, a través de su Consejo de Gobierno podrá aprobar la Oferta o las Ofertas de Empleo Público de su organización, así como las de sus Organismos Autónomos.

2.- Las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes podrán ser objeto de Oferta de Empleo Público.

Artículo 15.- Relación de Puestos de Trabajo.

1.- La Diputación Foral y los órganos competentes de los Organismos Autónomos Forales aprobarán las Relaciones de Puestos de Trabajo (en adelante RPT) que existen en sus respectivas organizaciones, así como las modificaciones de las mismas, que deberán incluir la denominación y características esenciales, las retribuciones complementarias que les correspondan, los requisitos exigidos para su desempeño, perfil lingüístico y fecha de preceptividad y sistema de provisión.

A tales efectos, la aprobación del presupuesto supone, en relación a la RPT de la Diputación Foral, la aprobación material y formal de la modificación efectuada de la RPT según el anexo incorporado, y la publicación de aquellos cumple con la obligación de publicación de las modificaciones de la RPT.

2.- Aquellas modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral, que se operen en virtud de cambios de estructuras orgánicas deberán ser previamente informadas por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. A los efectos del cumplimiento de las limitaciones del artículo 12 se atenderá a las mismas, así como a sus excepciones, y entre éstas, en particular a las derivadas de la creación de las nuevas áreas de actuación establecidas por el Decreto Foral del Diputado General 169/2023, de 6 de julio.

3.- Asimismo, las propuestas de cambios en las estructuras orgánicas de los Departamentos Forales, que supongan variaciones en la RPT, deberán incorporar una propuesta de distribución de los puestos de trabajo y del personal afectado. Así mismo, en todo caso deberán cumplir los acuerdos aprobados por el Consejo de Gobierno por el que se determinen los criterios para la creación de nuevas unidades de estructura y para la adaptación de unidades existentes que no se ajustan a los mismos.

Artículo 16.- Provisión de Puestos de Trabajo.

1.- La cobertura de los Puestos de Trabajo vacantes se efectuará de conformidad con los procedimientos establecidos en la legislación vigente, y en relación con los requisitos de la convocatoria (Concurso – ya sea unitario, de área, de las diferentes variantes de méritos específicos, entre otros,- o Libre Designación).

2.- El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, a petición de los distintos Departamentos Forales, podrá efectuar redistribuciones de efectivos dentro de un Departamento o entre distintos Departamentos, cuando las necesidades del Servicio lo exijan, en puestos de trabajo no singularizados de la misma naturaleza, nivel y complemento específico e igual procedimiento de provisión. Asimismo, será el competente en los supuestos de reasignaciones de efectivos.

13. artikulua.-**Kreditu soberakinak.**

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak plaza hutsen kreditu-soberakin aurreikusgarriak honako hauetarako erabili ahal izango ditu, 21. artikuluan adierazten diren xedeez gain: lehenik, soberakinaren jatorri diren plazez besteko batzuk finantzatzeko; bigarrenik, bitarteko langileen izendapenak edo aldi baterako kontratuak egiteko, baldin beharrezkoak badira zerbitzuek egoki jardun dezaten.

14. artikulua.- **Enplegu publikoaren eskaintza.**

1.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titularrak edo, bestela, foru-organismo autonomoetako gobernu organoek proposatu eta gero, Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren bidez, enplegu publikoaren eskaintza edo eskaintzak onetsi ahal izango ditu, bai bere burua antolatzeko, bai bere organismo autonomoak antolatzeko.

2.- Baldin giza baliabideen beharrizanek aurrekontuetan esleipena badute, baina ezin badira bete lehendik dauden langileekin, orduan, beharrizan horiek betetzeko, enplegu publikoaren eskaintza egin ahal izango da.

15. artikulua.- **Lanpostuen zerrenda.**

1.- Foru Aldundiak eta foru-organismo autonomoetako organo eskudunek, beren antolakundeetan diren lanpostuen zerrenda (hemendik aurrera LPZ) onetsiko dute, bai eta haren aldaketak ere; lanpostuen zerrendetan, lanpostuen izendazioa eta ezaugarri nagusiak, dagozkien ordainsari osagarriak, bete ahal izateko eskatzen diren betekizunak, hizkuntza eskakizuna eta dagokion derrigortasun data eta hornitzeko sistema aipatu beharko dira.

Horretarako, aurrekontuak onesteak berekin dakar, Foru Aldundiaren LPZri dagokionez, LPZn egin den aldaketa era material eta formalean onestea, erantsi den eranskinaren arabera; halaber, aurrekontuak argitaratuz, bete egiten da LPZren aldaketak argitara emateko beharrizana.

2.- Foru Aldundiaren Lanpostuen Zerrendan aldaketak jazotzen badira egitura organikoen aldaketak direla bide, orduan, aldaketa horien gaineko txostena lehendaurrez eman beharko du Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak. Bestalde, 12. artikuluak ezartzen dituen murriztapenak betetzeko, kontuan hartuko dira, bai murriztapen horiek, bai haien salbuespenak ere, eta azken horien artean, bereziki, Ahaldun Nagusiaren uztailaren 6ko 169/2023 Foru Dekretuak ezarritako jarduera-arlo berriak sortzearen ondoriozkoak.

3.- Halaber, foru sailen egitura organikoetan aldaketak egiteko proposamenak egiten badira, eta aldaketa horiek LPZri aldakuntzak ekartzen badizkiote, orduan haiekin batera proposamen bat egin beharko da, lanpostuak bezala eragiten zaien langileak banatzeko. Era berean, beti bete beharko dituzte Gobernu Kontseiluak onartutako erabakiak, irizpideak ezartzen dituztenak egitura-unitate berriak sortzeko eta irizpideekin bat ez datozen unitateak egokitzeko.

16. artikulua.- **Lanpostuen hornidura.**

1.- Lanpostu hutsak betetzeko, indarrean dagoen legerian ezarritako prozedurak erabiliko dira deialdiak ezarritako betekizunen arabera (nahiz lehiaketa –dela unitarioa, dela arlo jakin batekoa, edo meritu espezifiko batzuen edo besteen araberakoa, besteak beste–, nahiz izendapen askea).

2.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak bere esku izango du, baldin lanpostuek izaera, maila eta berariazko osagarri berak badituzte eta hornitzeko prozedura bera badagokie, langileak birbanatzea sail baten barruan edo sailen artean; horretarako, baina, dagokion foru sailak eskaria egin behar du, eta zerbitzuak beharrizana izan behar du. Halaber, langileak berresleitu behar direnean ere Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila izango da eskuduna.

Asimismo, para una eficaz prestación de los servicios y eficiente utilización de recursos humanos, se llevarán a cabo las medidas y procedimientos previstos en los planes de ordenación de empleo público de la Diputación Foral de Bizkaia.

3.- En los supuestos establecidos en la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, se podrá adscribir al personal empleado de la Diputación Foral al desempeño provisional de un puesto propio de su Cuerpo o Escala.

4.- El personal funcionario de la Diputación Foral podrá ser asignado, en comisión de servicios, al desempeño de otro puesto de trabajo propio de su Cuerpo o Escala, o a la realización de funciones distintas de las específicas del puesto a que se halle adscrito. La competencia será de la persona Titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

5.- El órgano competente en materia de adscripción del personal a los puestos de trabajo, podrá aprobar criterios para su adscripción y para el desarrollo de los sistemas de provisión de carácter definitivo, temporal y provisional.

CAPÍTULO II

Procedimiento a seguir en las modificaciones referidas a la plantilla y a la provisión de puestos de trabajo del Sector público administrativo

Artículo 17.- Altas de Nuevo Personal.

1.- Los expedientes relativos a tomas de posesión del personal funcionario de carrera e interino para aquellas plazas que se encuentren vacantes y en los de contratación laboral indefinida deberán incluir en el momento de la firma, informe del Departamento de Hacienda y Finanzas, en el que se manifieste la existencia de la plaza, y de la dotación presupuestaria hasta fin de ejercicio, todo ello de acuerdo con el Orgánico, Programa y Económico que corresponda.

2.- El órgano competente, en cada caso, de la Diputación Foral, a petición de los Departamentos Forales y a través del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, podrá celebrar contratos, en régimen laboral temporal con arreglo a lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones complementarias vigentes.

3.- La toma de posesión de personal eventual requerirá la existencia de puesto vacante dotado presupuestariamente en su correspondiente relación de puestos.

4.- El órgano competente de la Diputación Foral podrá efectuar nombramientos del personal funcionario interino para aquellas plazas que se encuentren vacantes, todo ello en la forma prevista en las disposiciones legales vigentes en materia de función pública. Asimismo, y en la forma prevista en las disposiciones legales vigentes, podrá efectuar nombramientos de personal funcionario interino para la sustitución de personal funcionario, o para la cobertura interina de puestos de trabajo, así como para la ejecución de programas temporales, así como por exceso o acumulación de tareas, o cualesquiera que la legislación vigente permita. A tal efecto, dentro de los límites presupuestarios consignados al efecto, previa aprobación por el Consejo de Gobierno de las condiciones para la determinación y concreción de los nombramientos de personal funcionario interino, estos se formalizarán y concretarán tanto en las personas objeto de nombramiento como en el inicio y motivos de cese del mismo, así como en el objeto de cobertura, mediante Orden Foral de la titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

5.- La propuesta de contrataciones temporales e interinidades que no sean de vacante, excepto la de contratos de duración determinada de interinidad o de interinidades de sustitución, contendrá –realizado informáticamente- un trámite de fiscalización de la reserva efectuada por el órgano de contratación del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales que contenga:

a) La cuantía del crédito hasta fin de contrato ó ejercicio.

Halaber, zerbitzuak modu eraginkorrean emateko eta giza baliabideak ere era eragingarrian erabiltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren enplegu publikoaren antolamendurako planetan aurreikusirik dauden neurriak eta prozedurak ezarriko dira.

3.- Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean ezarritako kasuetan, aukeran izango da Foru Aldundiko enplegatuak beren kidego edo eskalako lanpostu batean behin-behinean jarduteko esleitzea.

4.- Aukeran izango da, halaber, Foru Aldundiko funtzionarioak beren kidegoan edo eskalan beste lanpostu baten zerbitzu eginkizunetan jardun daitezen esleitzea, edo atxikita dauden lanpostuaren berariazko eginkizunez besteko batzuk bete ditzaten esleitzea. Horretarako eskumena, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko pertsona titularrak izango du.

5.- Langileak lanpostuei adskribatzeari dagokion arloan eskuduna den organoak bere esku du langileak adskribatzeko eta behin betiko, aldi baterako edo behin-behineko hornidura-sistemak garatzeko irizpideak onestea.

II. KAPITULUA

Sektore publiko administratiboko plantillari eta lanpostuen hornidurari buruzko aldaketak egiteko prozedura

17. artikulua.- **Langile berrien altak.**

1.- Bitarteko funtzionarioak eta karrerako funtzionarioak plaza hutsez jabetu behar direneko espedienteak sinatu behar direnean eta lan-kontratu mugagabeei buruzko espedienteak sinatu behar direnean, Ogasun eta Finantza Sailaren txostena erantsi behar da, adierazten duena badela dena delako plaza hori, eta baduela halaber ekitaldia amaitu arteko aurrekontu-zuzkidura, eta hori guztia aurrekontuen sailkapen organiko, programen araberako eta ekonomikoarekin bat etorriz.

2.- Kasuan kasu, Foru Aldundiaren organo eskudunak, foru sailek eskaturik eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren bidez, bere esku izango du aldi baterako lan-kontratuak egitea Langileen Estatutuan eta indarreko gainerako xedapen osagarrietan xedatutakoaren arabera.

3.- Behin-behineko langileak lanpostuaz jabetzeko, nahitaezkoa izango da dagokion lanpostuen zerrendan lanpostu huts aurrekontu-zuzkiduradunak izatea.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango ditu bete gabe dauden plazetarako, betiere funtzio publikoari buruz indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako eran. Halaber, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarri den eran, bitarteko funtzionarioak izenda ditzake karrerako pertsonal funtzionarioak ordezteko, edo lanpostuak aldi baterako betetzeko, edo aldi baterako programak egikaritzeko, eta, baita ere, ataza gehiegi daudenerako edo atazak metatu direnerako, edo indarreko legeriak baimentzen dituen gainerako guztietarako. Horri dagokionez, horretarako izendatuta dauden aurrekontuko mugen barruan, Gobernu Kontseiluak aldez aurretik bitarteko funtzionarioak zehazki izendatzeko baldintzak onetsirik, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko titularraren foru-agindua beharko da izendapenok formalizatzeko eta gauzatzeko, zehaztuz zein pertsona izendatzen den, zer lanpostu zehatz betetzen den eta lanpostua uztea zein unetatik eta zergatik izango den.

5.- Aldi baterako kontratazioak egiteko eta bitarteko funtzionarioak izendatzeko porposamenak, hutsik ez dauden lanpostuen kasuan –salbu eta aldi zehatz baterako bitarteko funtzionarioa izendatzeko kasuan eta ordezkapenak egiteko bitarteko funtzionarioa izendatzeko kasuan–, fiskalizazio izapide bat (informatikoa) izan beharko du, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko kontratazio-oganoak egindako erreserbari buruzkoa. Honako hauek zehaztu beharko ditu:

a) Kredituaren zenbatekoa kontratua edo ekitaldia amaitu arte.

b) La, o las partidas presupuestarias con que se dota la cuantía indicada.

Artículo 18.- Bajas de Personal.

1.- Se considera baja de personal, el cese de cualquier persona en la plaza que viniera ocupando en la plantilla de la Diputación Foral de Bizkaia tratándose de personal laboral indefinido y funcionario de carrera , el cese en la cobertura de plaza o puesto de trabajo, así como el cese derivado de la sustitución de cualquier tipo de personal y finalmente el cese derivado de la finalización de cualquier modalidad de prestación temporal de servicios.

2.- Salvo que la Diputación Foral acuerde la amortización de la plaza, toda baja de personal que ocupe plaza, de forma permanente o interina, generará o liberará una vacante respectivamente, excepto las vacantes que impliquen reserva de plazas.

Artículo 19.- Modificaciones de Personal.

1.- Al comienzo del ejercicio 2027 se deberán contabilizar, de forma automática, las modificaciones aprobadas por la Diputación Foral desde la presentación del Proyecto de Presupuestos en las Juntas Generales, hasta la entrada en vigor de esta Norma Foral.

2.- La tramitación de las modificaciones de crédito que comporte la provisión de puestos de trabajo, se llevará a cabo por el Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales que contendrá –realizado informáticamente- un trámite de fiscalización y contabilización por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas. Dicho trámite no será de aplicación para las modificaciones realizadas en aplicación del apartado primero de este artículo.

3.- La aprobación de mayores dotaciones de crédito en las plazas de plantilla y para los puestos de trabajo implicará la tramitación, por parte del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, de las correspondientes modificaciones de crédito.

4.- Si los créditos del Capítulo I tuvieran que ser incrementados por aplicación del régimen retributivo a que se refiere el Capítulo III del Título IV de la presente Norma Foral, o como consecuencia de incrementos salariales en virtud de disposiciones legales de carácter general, resoluciones judiciales, y otras que sean de aplicación al personal al servicio de la Administración Foral, el Titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales solicitará del Titular del Departamento de Hacienda y Finanzas la correspondiente Ampliación del Crédito.

5.- La Diputación Foral de Bizkaia podrá aprobar, a propuesta del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Planes de Empleo u otros sistemas de racionalización de recursos humanos los cuales podrán abarcar planes de ordenación de empleo público, planes de jubilaciones voluntarias incentivadas o cualquier otro que se considere oportuno que, de conformidad con la legislación vigente, se consideren necesarios para la mejor gestión de los recursos humanos.

6.- No obstante lo dispuesto en los párrafos anteriores, cuando se deban realizar modificaciones de crédito que supongan un incremento del total de créditos consignados en el Capítulo I, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales solicitará del Departamento de Hacienda y Finanzas la oportuna dotación presupuestaria.

Artículo 20.- Aplicación a los Organismos Autónomos Forales.

Lo establecido en los artículos 17, 18 y 19 será de aplicación a los Organismos Autónomos, sustituyendo las referencias a los órganos de la Diputación Foral por los que corresponda en los citados Organismos Autónomos.

b) Aipaturiko zenbatekoa hornitzen duten aurrekontu-partidak.

18. artikulua.- **Langileen bajak.**

1.- Langileen bajatzat jotzen da: edozein pertsonak Bizkaiko Foru Aldundiko plantillan betetzen ari zen plaza uztea, baldin eta mugagabeko lan-kontratuko langilea edo karrerako funtzionarioa bada; lanpostua edo plaza uztea; orobat, ordezpenaren ondorioz edozein langileri lanpostua utzaraztea eta edozein motatako aldi baterako zerbitzualdi baten ondorioz lanpostua uztea.

2.- Foru Aldundiak plazaren amortizazioa erabakitzen duenean izan ezik, baldin bitarteko funtzionario gisa edo irakunkortasunez plaza bat betetzen duen langile baten baja gertatzen bada, horrek berekin ekarriko du lanpostu huts bat sortu edo liberatzea, salbu eta plazen erreserba berekin duten lanpostu hutsen kasuan.

19. artikulua.- **Pertsonalaren arloko aldaketak.**

1.- 2027ko ekitaldiaren hasieran, automatikoki sartu beharko dira kontabilitatean Foru Aldundiak onesten dituen aldaketak, aurrekontuei buruzko proiektua Batzar Nagusiei aurkezten zaionetik foru arau hau indarrean sartu artekoak.

2.- Lanpostuen hornidura dakarten kreditu aldaketen tramitazioa Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak bideratuko du; tramitazio horrek Ogasun eta Finantza Sailak egindako fiskalizazio eta kontabilizatze izapidea jasoko du (baliabide informatikoak baliatuz egina). Izapide hori ez da aplikagarria izango, baldin artikulu honen lehenengo apartatuan xedatutakoa aplikatuta egiten badira direlako aldaketak.

3.- Plantillako plaza eta lanpostuetarako kreditu zuzkidura handiagoak onets badaitez, orduan Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak haiei dagozkien kreditu aldaketak tramitatu behar izango ditu.

4.- Beste alde batetik, baldin eta I. Kapituluko kredituak gehitu beharko balira foru-arau honetako IV. tituluko III. kapituluak aipatzen duen ordainsari araubidea ezartzearen ondorioz edota legezko xedapen orokor, jurisdikzioko ebazpenen zein Foru Administrazioaren zerbitzupeko langileriari ezarri ahal zaizkion besteren batzuen ziozko soldata igoeren ondorioz, orduan, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari kredituzabaltzea eskatuko dio.

5.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak proposamena egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku izango du enplegu planak onestea, edota giza baliabideak arrazionalizatzeko beste sistema batzuk, hasi enplegu publikoa antolatzeko planetatik eta dirulaguntza bidezko erretiro planetara arte edo beste edozein, baldin eta indarrean den legeriaren arabera beharrezkotzat hartzen badira giza baliabideak hobeto kudeatzeko.

6.- Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, baldin eta kreditu aldaketak egin behar badira eta aldaketa horiek I. kapituluan izendatutako kredituen guztizkoaren gehikuntza badakarte, orduan, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak Ogasun eta Finantza Sailari dagokion aurrekontu zuzkidura eskatuko dio.

20. artikulua.- Foru-organismo autonomoei aplikatu beharrekoak.

17, 18 eta 19. artikuluetan ezarri dena aplikatuko zaie foru-organismo autonomoei, eta, hala, ordeztu egingo dira Foru Aldundiko organoei buruz dauden erreferentziak, eta haien ordez organismo autonomo horiei buruzkoak jarri.

CAPÍTULO III

Régimen retributivo del personal del Sector público administrativo

Artículo 21.- Retribuciones del Personal.

1.- Las retribuciones anuales íntegras del personal al servicio de la Administración Foral, respecto de las vigentes una vez consolidadas al 31 de diciembre de 2026, se incrementarán de conformidad con lo previsto en esta Norma Foral, dentro de los límites legales establecidos. Todo ello sin perjuicio, en su caso, de la adecuación de las retribuciones complementarias cuando sea necesaria para asegurar que las asignadas a cada puesto de trabajo guarden la relación procedente con el contenido de especial dificultad técnica, dedicación, responsabilidad, peligrosidad o penosidad del mismo que serán aprobadas por la Diputación Foral o de las modificaciones de las complementarias que se deriven de la variación del número de efectivos asignados a cada programa, del grado de consecución de los objetivos fijados para el mismo y del resultado individual de su aplicación y que serán aprobadas por el órgano competente de la Diputación Foral.

En este sentido, y en aras de poder continuar con un sistema de evaluación del rendimiento y aplicación de sus resultados, la Diputación Foral podrá establecer un fondo adicional, para retribuir un complemento de productividad, bien a través de incentivos al rendimiento, o bien a través del propio concepto de productividad, en su caso; pudiendo dicho fondo dotarse con el resultado de las economías que se produzcan en el Capítulo I –gastos de personal–.

Las retribuciones por este concepto –productividad–, o a través de gratificación, en ambos conceptos, se aplicarán –en su caso– en una paga única, según lo que establezca y apruebe la Diputación Foral, para la distribución de dicho fondo, tanto al personal que figura en el primer párrafo del apartado 1 como al que figura en el apartado 2 de este artículo.

Los Organismos Autónomos, siguiendo un criterio de proporcionalidad, podrán incorporar las cantidades resultantes para el establecimiento de la retribución anual.

2.- Las retribuciones de la Diputada General, Teniente de la Diputada General, Diputados y Diputadas Forales y Directores y Directoras Generales y personal eventual serán las vigentes una vez consolidadas al 31 de diciembre de 2026, incrementadas en el porcentaje de crecimiento global que resulte para el conjunto de la masa salarial del personal de la Administración General, incluida, en su caso, la productividad, y se determinarán con los criterios establecidos en el resto de apartados de este artículo de la presente Norma Foral, incluida la productividad.

3.- Las cantidades que se pudiesen abonar en el presente ejercicio como resultado de lo indicado en el apartado primero, podrán verse sometidas a los criterios establecidos por la disposición adicional undécima de la Ley 13/2000 de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2001, a los efectos de las incorporaciones de las cantidades pertinentes para el año siguiente para su consolidación dentro de las retribuciones periódicas del personal empleado público para ese ejercicio.

Asimismo las cantidades que por dicho concepto se hubieran abonado durante el ejercicio 2026 seguirán el criterio indicado en el párrafo anterior a efectos de su consolidación dentro de las retribuciones a que se refieren los apartados primero y segundo de este artículo.

Artículo 22.- Aplicación a los Organismos Autónomos Forales.

Lo establecido en el artículo anterior será de aplicación a los Organismos Autónomos Forales, sustituyendo las referencias a los órganos de la Diputación Foral por los que corresponda en los citados Organismos.

III. KAPITULUA

Sektore publiko administratiboko langileen ordainsari araubidea

21. artikulua.-Langileen ordainsariak.

1.- Foru Administrazioaren zerbitzupeko langileen urteko ordainsari osoen kopurua, 2026ko abenduaren 31n indarrean eta finkatuta daudenen araberakoa, gehitu egingo da foru-arau honetan ezarritakoaren arabera, legez ezarritako mugen barruan. Eta hori horrela bada ere, zenbaitetan egokitu egin beharko dira ordainsari osagarriak, bermatzearren lanpostu bakoitzari esleitutakoak bat datozela kasuan kasuko lanpostuak duen zailtasun tekniko bereziarekin, dedikazioarekin, erantzukizunarekin, arriskugarritasun edo nekagarritasunarekin; egokitzapenok Foru Aldundiak onetsiko ditu. Gainera, beste zenbait kasutan ere aldatu beharko dira ordainsari osagarriok: programa bakoitzari atxikitako pertsona kopurua aldatzean; programa bakoitzerako ezarri diren helburuen lorpen graduan arabera, edo aldaketok aplikatzeak duen emaitza indibidualaren arabera; Foru Aldundian eskumena duen organoak onetsiko ditu azken aldaketa hauek.

Alde horretatik, eta etekinaren ebaluazioaren eta bere emaitzen aplikazioen sistema batekin jarraitu ahal izateko, Foru Aldundiak aukeran du produktibitate-osagarri bat ordaintzeko funts gehigarri bat ezartzea, bai errendimendurako pizgarrien bidez, edo baita, hala denean, produktibitatearen kontzeptuaren beraren bidez; funts hori I. kapituluan – pertsonalaren gastuak- gertatuko diren aurrezpenen emaitzarekin zuzki daiteke

Produktibitatea dela-eta ematen diren ordainsariak edo haborokinen bidez ematen direnak denak batera ordainduko zaizkie artikulu honen 1. apartatuko lehen paragrafoan eta artikulu honen 2. apartatuan ageri diren langileei, bi kontzeptuetan –hala denean-, Foru Aldundiak funts hori banatzeko ezartzen eta onesten duenaren arabera.

Organismo autonomoek, proportzionaltasun irizpide bat betez, aukeran izango dute horrela ateratzen diren zenbatekoak eranstea urteko ordainsaria ezartzeko.

2.- Ahaldun Nagusiaren, diputatu nagusiordearen, foru diputatuen, zuzendari nagusien eta behin-behineko langileen ordainsariak 2026ko abenduaren 31n indarrean daudenak izango dira, behin data horretan finkatuz gerokoak, eta Administrazio Orokorreko langileentzako soldata-masak izango duen besteko gehikuntza portzentuala izango dute, produktibitatea ere barne dela, hala badagokio; ordainsariok honako foru-arau honen artikuluaren apartatu hauetan ezarririk dauden irizpideen arabera determinatuko dira, produktibitatea ere barne.

3.- Gerta liteke lehenengo apartatuan adierazi denaren ondorioz honako ekitaldi honetan ordainduko diren zenbatekoak 2001. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 13/2000 Legearen xedapen gehigarrietatik hamaikagarrenean ezarri diren irizpideen pean ezartzea, hurrengo urterako dagozkion zenbatekoak eranstearren, enplegatu publikoen ekitaldi horretarako aldian aldiko ordainsarien barruan finka daitezen.

Era berean, 2026. urteari dagokion ekitaldian kontzeptu horren kariaz ordaindu izan diren zenbatekoak aurreko paragrafoan adierazi den irizpidearen araberakoak izango dira, hartara haien finkatzea gerta dadin artikulu honen lehen eta bigarren apartatuetan aipatzen diren ordainsarietan.

22. artikulua.- Foru-organismo autonomoei aplikatu beharrekoak.

Honen aurreko artikuluan ezarri dena foru Organismo autonomoei aplikatuko zaie, eta ordeztu egingo dira Foru Aldundiko organoei buruz dauden erreferentziak, eta haien ordez organismo horiei buruzkoak jarriko.

CAPÍTULO IV

Gestión del personal del Sector publico empresarial

Artículo 23.- Gestión de Personal de las Entidades públicas empresariales forales.

La tramitación de los temas referentes al personal al servicio de las Entidades publicas empresariales forales, se efectuará por las unidades administrativas que correspondan, siéndoles de aplicación las mismas limitaciones y procedimientos que los establecidos en los Capítulos anteriores para la Diputación Foral de Bizkaia.

Artículo 24.- Retribuciones del Personal.

Las retribuciones de los Presidentes, Presidentas, Directores, Directoras o Gerentes de las Entidades que componen el Sector Público empresarial, respecto de las vigentes una vez consolidadas al 31 de diciembre de 2026, se incrementarán de conformidad con lo previsto en esta Norma Foral, dentro de los límites legales establecidos, y se determinarán de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 21 de la presente Norma Foral.

Con efectos al 1 de Enero de 2027, las retribuciones íntegras de todo el personal al servicio del Sector público empresarial, respecto de las vigentes una vez consolidadas al 31 de diciembre de 2026, se incrementarán de conformidad con lo previsto en esta Norma Foral, dentro de los límites legales establecidos y se determinará de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 21 de la presente Norma Foral.

Artículo 25.- Creación, modificación y/o amortización de la plazas de plantilla.

La propuesta de creación y/o modificación de las plazas de plantilla requerirá de la autorización del Titular del Departamento de Hacienda y Finanzas y del Titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Se deberá tener en cuenta que durante el ejercicio 2027 sólo se podrán aprobar ampliaciones o modificaciones de plantilla, cuando el incremento del gasto que se derive de los mismos se compense mediante la reducción del crédito incluido en otras plazas. En consecuencia, cualquier creación de plazas requerirá la simultánea amortización de otras plazas de igual o superior dotación económica.

Artículo 26.- Contratación de Personal.

1.- Durante el ejercicio 2027, las plantillas de personal fijo del Sector público empresarial serán las que figuran en los Presupuestos, siendo su carácter limitativo.

En consecuencia, únicamente se podrá proceder a la contratación laboral indefinida para la cobertura de las plazas de plantilla que estén vacantes.

Tampoco se verán afectados por la limitación anterior las modificaciones de puestos de trabajo que se deriven de las medidas acordadas como consecuencia de Planes de Recursos Humanos del Sector público empresarial, aprobados por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

2.- Asimismo, durante el ejercicio 2027, las Entidades a las que se refiere el número anterior, no podrán proceder a la contratación de personal temporal no contemplado en los Presupuestos, salvo en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables, previa autorización de la Diputación Foral.

3.- Quedan exceptuados de la prohibición anterior los contratos de interinidad para sustituir al personal con derecho a reserva del puesto de trabajo.

4.- Excepcionalmente, y para el supuesto de empresas públicas forales de nueva creación durante el ejercicio presupuestario, éstas podrán aprobar su plantilla de personal conforme al procedimiento que tengan establecido.

IV. KAPITULUA

Enpresa-sektore publikoko langileen kudeaketa

23. artikulua.- Langileen kudeaketa foru enpresa-entitate publikoetan.

Foru enpresa-entitate publikoetako langileei dagozkien gaien tramitazioa zeregin hori duten unitate administratiboen bidez egingo da; horrezaz gainera, Bizkaiko Foru Aldundiarentzat aurreko kapituluetan ezarritako mugapen eta prozedura berberak ezarriko zaizkie langile horiei.

24. artikulua.- Langileen ordainsariak.

Enpresa-sektore publikoa osatzen duten entitateetako lehendakari, zuzendari edo kudeatzaileen ordainsariak, behin 2026ko abenduaren 31n indarrean finkatuz gero indarrean daudenen aldean, foru-arau honetan ezarritakoaren arabera gehituko dira, legez ezarritako mugen barruan, eta foru-arau honetako 21. artikuluak ezartzen dituen irizpideei jarraiki zehaztuko dira.

2027. urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin, enpresa-sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langile guztien ordainsari osoak, 2026ko abenduaren 31n finkatuz gero indarrean daudenen aldean, foru-arau honetan ezarritakoaren arabera gehituko dira, legez ezarritako mugen barruan, eta foru-arau honetako 21. artikuluak ezartzen dituen irizpideei jarraiki zehaztuko dira.

25. artikulua.- Plantillako plazak sortzea, aldatzea edo amortizatzea.

Plantillako plazak sortu edo aldatzeko proposamena egiteko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren baimena eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren baimena beharko dira.

2027ko ekitaldian plantillaren aldaketak edo gehikuntzak onetsiko badira, haien ondoriozko gastuaren gehikuntza beste lanpostu batzuetako kredituaren murrizketaren bidez konpentsatu beharko da. Ondorioz, plazak sortzen badira, nahitaezkoa izango da aldi berean diru-zuzkidura bereko edo handiagoko beste plaza batzuk amortizatzea.

26. artikulua.- Langileak kontratatzea.

1.- 2027ko ekitaldian zehar, enpresa-sektore publikoetako langile finkoen plantillak aurrekontuetan daudenak izango dira, eta plantilla horiek izaera mugatzailea izango dute.

Horrenbestez, lan-kontratu mugagabeak egitekotan, bete gabe dauden plantillako plazak betetzeko izango dira.

Aurreko mugaren eraginetik kanpo egongo dira, baita ere, lanpostuen aldaketak, baldin enpresa-sektore publikoko Giza Baliabideen Plan Bizkaiko Gobernu Kontseiluak onartuen ondorioz erabakitako neurrietatik eratorriak badira.

2.- Halaber, 2027ko ekitaldian zehar, aurreko zenbakian aipatutako entitateek ezin izango dute aurrekontuan sartu gabeko beste langilerik kontratatu aldi baterako, salbuespeneko kasuetan izan ezik eta premiazko beharrizan atzeraezinak betetzeko salbu; horretarako, ordea, Foru Aldundiak lehendaurrez eskuetsi behar du.

3.- Bitarteko funtzionarioen kontratuak salbuetsirik daude aurreko debeku horretatik, baldin eta lanpostuaren erreserbarako eskubidea duten langileen ordezkoak jartzeko badira.

4.- Salbuespen legez, eta aurrekontu-ekitaldian zehar berriren berri sortutako foru enpresa publikoak diren ginoan, enpresa horiek langileen plantilla onetsi ahal izango dute ezarria duten prozeduraren arabera.

TÍTULO V

De las Operaciones Financieras

CAPÍTULO I

Garantías

Artículo 27.- Límites de las Garantías y reafianzamiento.

1.- Se fija en 3.000.000,00 euros el importe máximo de las garantías a los efectos de lo dispuesto en el artículo 128 del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

2.- Asimismo, durante el ejercicio 2026, la Diputación Foral de Bizkaia podrá reafianzar los avales otorgados por las sociedades de garantía recíproca en el marco de los correspondientes convenios suscritos con esas entidades, previo informe de la Dirección General de Finanzas, Presupuesto y Patrimonio del Departamento de Hacienda y Finanzas.

La dotación máxima del reafianzamiento al que se refiere el párrafo anterior, independientemente de la forma en que se materialice, será de 350.000,00 euros, durante la vigencia de los convenios suscritos.

CAPÍTULO II

Endeudamiento

Artículo 28.- Límite.

Se autoriza a la Diputación Foral de Bizkaia para que, a propuesta del Titular del Departamento Foral de Hacienda y Finanzas realice operaciones de endeudamiento de carácter presupuestario del Territorio Histórico siempre y cuando la Deuda Foral Viva a 31 de diciembre de 2026 no exceda de 1.830.000.000 euros.

Artículo 29.- Endeudamiento y operaciones financieras en Sociedades Mercantiles Forales.

1.- A 31 de diciembre de 2026, el saldo de deudas generadas por operaciones de endeudamiento a largo plazo de las sociedades mercantiles forales que a continuación se relacionan no podrá superar:

– Interbiak Bizkaia, S.A.M.P.: 578.000.000,00 euros.

2.- A 31 de diciembre de 2027, el volumen del endeudamiento comercial a largo plazo de las sociedades mercantiles forales que a continuación se relacionan no podrá superar:

– Garbiker, S.A.M.P.: por endeudamiento comercial 5.000.000,00 euros

3.- Las Sociedades mercantiles forales no podrán otorgar garantías ni realizar operaciones de endeudamiento en favor de terceros sin acuerdo expreso del Consejo de Gobierno, previo informe del Departamento de Hacienda y Finanzas.

TÍTULO VI

De los Municipios del Territorio Histórico

CAPÍTULO I

De los Ingresos Municipales

Artículo 30.- Recaudación de Tributos Locales.

1.- Sin perjuicio de la opción que corresponde a los municipios para la asunción del cobro de los tributos, la Diputación Foral podrá continuar prestando dicho servicio recaudatorio según los Convenios suscritos con los mismos.

2.- Las operaciones que se lleven a cabo en ejecución de cuanto se dispone en el apartado anterior tendrán carácter extrapresupuestario.

V. TITULUA

Finantza eragiketak

I. KAPITULUA

Bermeak

27. artikulua.- Bermeen mugak eta birfidantzamendua.

1.- Bermeen gehieneko zenbatekoa 3.000.000,00 eurotan ezarri da, Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren Testu Bateginaren 128. artikuluan ezarri denaren ondoreetarako.

2.- Halaber, 2026. urteari dagokion ekitaldian zehar, Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku izango du elkar bermatzeko sozietateekin sinatutako hitzarmenen esparruan sozietate horiek ematen dituzten abalak birfidantzatzea; horretarako, lehendaurrez, Ogasun eta Finantza Sailaren Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak txostena egin beharko du.

Aurreko paragrafoan aipatu den birfidantzamenduaren gehieneko zuzkidura, sinatutako hitzarmenen indarraldian zehar, 350.000,00 eurokoa izango da, kontuan hartu gabe nola gauzatzen den.

II. KAPITULUA

Zorpetzea

28. artikulua.- Muga.

Bizkaiko Foru Aldundiak baimena izango du Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik Lurralde Historikoaren aurrekontuen pean zorpetze-eragiketak egiteko, betiere 2026ko abenduaren 31ko Foru Zor Bizia ez bada 1.830.000.000 eurotik gorakoa.

29. artikulua.- Zorpetzea eta finantza eragiketa merkataritzako foru sozietatetan.

1.- 2026ko abenduaren 31n, zerrenda honetan ageri diren merkataritzako foru-sozietateen zorpetze-eragiketek sortutako epe luzeko zorren saldoak ezingo ditu kopuru hauek gainditu:

– Interbiak Bizkaia, ABMP : 578.000.000,00 euro.

2.- 2027ko abenduaren 31n, zerrenda honetan ageri diren merkataritzako foru-sozietateen merkataritzako epe luzeko zorpetzearen bolumenak ezingo ditu kopuru hauek gainditu:

– Garbiker, ABMP: 5.000.000,00 euro, merkataritzako zorpetzea dela eta.

3.- Merkataritzako foru-sozietateek ezin dute bermerik eman edo hirugarrenen aldeko zorpetze-eragiketarik egin Gobernu Kontseiluak berariazko erabakirik eman gabe Ogasun eta Finantza Sailak txostena eman ondoren.

VI. TITULUA

Lurralde Historikoko udalerriak

I. KAPITULUA

Udalen diru sarrerak

30. artikulua.-Toki zergen bilketa.

1.- Ezertan eragin gabe udalerriek tributuak kobratzeko eginkizuna beren gain hartzeko duten aukerari, Foru Aldundiak aukeran du zerga-bilketako zerbitzu hori ematen jarraitzea udalekin sinatutako hitzarmenen arabera.

2.- Aurreko apartatuan xedatu dena egikaritzeko egingo diren eragiketak aurrekontu-izaerarik gabekoak izango dira.

Artículo 31.- Participación de los Municipios en los tributos concertados.

Las participaciones de los Municipios en los ingresos derivados de los tributos concertados constituirán el Fondo Foral de Financiación Municipal -Udalkutxa–.

Los Municipios también participarán en los ingresos derivados de los tributos concertados constituyendo el Fondo Foral de Financiación Municipal de Servicios Sociales –FSS–.

Artículo 32.- Participación de los Municipios en los tributos no concertados.

Los recursos que en virtud de lo dispuesto en el Artículo 51 del Concierto Económico correspondan a los municipios por aportación indirecta mediante participaciones en tributos no concertados, tendrán carácter extrapresupuestario, y su distribución se hará con los mismos porcentajes que resulten de la participación en los tributos concertados –Udalkutxa–.

Artículo 33.- Participación de los Municipios en el Fondo Gizartekutxa.

1.- La participación de los Municipios en un 0,184% en los ingresos derivados de los capítulos 1 a 8 de ingresos del Presupuesto de la Diputación Foral de Bizkaia constituirá el Fondo Foral de Financiación Municipal –Gizartekutxa.

2.- Así mismo se integrará en el Fondo Gizartekutxa el 15% de lo asignado al Territorio Histórico de Bizkaia en las dotaciones presupuestarias destinadas a la financiación del nivel mínimo y el nivel acordado de protección del sistema de autonomía y atención a la dependencia.

Artículo 34.- Otros Ingresos de carácter extrapresupuestario.

Tendrán carácter extrapresupuestario, los ingresos en la Hacienda Foral y los correspondientes pagos a los municipios por la tributación de los operadores de telecomunicaciones, que se atribuyan a los Municipios de Bizkaia en virtud de la normativa aplicable.

CAPÍTULO II

Del Fondo Foral de Financiación Municipal –UDALKUTXA–

Artículo 35.- Cuantía.

De conformidad con lo previsto en el artículo 20 Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026, y los acuerdos adoptados en el Consejo Vasco de Finanzas Públicas de 15 de octubre de 2026 y Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia de 20 de octubre de 2026 el crédito presupuestario para el año 2027 destinado a la financiación del Fondo Foral de Financiación Municipal -Udalkutxa-, al que hace referencia la Norma Foral de Haciendas Locales, se cifra en 1.287.142.980, 00 euros.

Artículo 36.- Esfuerzo Fiscal.

A tenor de lo dispuesto en la Norma Foral de Haciendas Locales se considerará esfuerzo fiscal municipal a efectos de cálculo de la liquidación del Fondo del año 2026 y de la entrega a cuenta 2027, el resultante de la aplicación de la siguiente fórmula:

31. artikulua.- Udalerrien partaidetza zerga itunduetan.

Udalerriek partaidetzak izango dituzte zerga itunduetako diru sarreretan; eta partaidetza horiek Udalkutxa “Udal Finantzaketarako Foru Funtsa” osatuko dute.

Udalerriek ere parte hartuko dute zerga itunduetatik eratorritako diru-sarreretan, eta Gizarte Zerbitzuen Udal Finantzaketarako Foru Funtsa –GZF– eratuko dute.

32. artikulua.- Udalerrien partaidetza itundu gabeko zergetan.

Ekonomi Ituneko 51. artikuluan xedatutakoaren arabera udalerriek badute partaidetza zeharkako ekarpenen zioz itundu gabeko zergetan; bada, horren bidez toki korporazio horiei dagozkien baliabideak aurrekontuaz kanpokoak izango dira eta haien banaketa honela egingo da: zein portzentaje atera diren Udalkutxa-zerga itunduetako partaidetzan, portzentaje horiexen arabera.

33. artikulua.- Udalerrien partaidetza Gizartekutxa Funtsean.

